

PRENTSA-OHARRA

Sorkuntza artistikoaren
inguruko topaketa

Encuentro en torno
a la creación artística

Meeting around
artistic creation

25.9

Asteazkena Miércoles Wednesday

Abel Jaramillo

Ana G. Lartitegui

Elahood

Idoia Zabaleta

Proyecto Larrua

Manu Muniategiandikoetxea

Raketa Brokobitx

Allora & Calzadilla

Ane Berganza

Elena Aitzkoa

Ixiar Rozas

Lore Stessel

Amaia Molinet

Ca marche

Gala Knörr

Jon Gerediaga

Lorea Burge

Olatz de Andrés

Rosa Casado

AZZABALIK

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok hasiera emango dio denboraldiari AZZabalik, sorkuntza artistikoaren inguruko topaketarekin

- Irailaren 25ean, asteazkena, ospatuko da, publiko komunitate guztientzako programazioarekin
- Goizean, 2024-2025 denboraldiaren aurrerapen bat aurkeztuko da, eta jardunaldi profesional bat egingo da sorkuntzari laguntzeko
- Arratsaldean, artisten estudioak irekiko dira Lantegian eta jarduera programa bat egingo da irakurketa performatiboekin, bisita gidatuekin, performanceekin erakusketa aretoan eta dantza ikuskizunekin

Bilbo, 2024ko irailaren 18an.- Datorren irailaren 25ean Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok, Bilboko Udaleko Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroak AZZabalik. Sorkuntza Artistikoaren inguruko Topaketarekin hasiko du

2024-2025 denboraldia. Topaketa honek ekoizpen garaikidea erakutsiko du bertako eta nazioarteko hogeita hamar bat artistaren lanaren bidez eta Zentroan hogeit bat jarduera eginez.

Gainera, *open studios* jardunaldi bat eskainiko du eta 2024-2025 denboraldiko programazioaren aurrerapen bat aurkeztuko du, horren artean, publiko guztientzako 150 jarduera eta arte eszenikoen programazio zabala nabarmentzen dira.

Sorkuntzari laguntzeari buruzko gogoeta

AZzabalik goizean hasiko da *Pentsatu, egin, bizi. Egonaldi artistikoen inguruko topaketa profesionala* jardunaldiarekin. Gogoeta komun gisa, egonaldi batzuen arduradunek —instituzionalek eta independenteek— eta artistek iritzia emango dute sorkuntza bultzatzeko eta laguntzeko programen garrantziaz.

Topaketa profesional honetan parte hartuko dute, besteak beste, Ángeles Albert, Kulturako Estatu Idazkaritzako Kabineteko Zuzendaria; Mohamed El Amrani, Banco Sabadell Fundazioko Komunitateen Arduraduna; Oskia Ugarte, Huarteko Arte Garaikideko Zentroko zuzendaria; Carla Meller, Bartzelonako Nazioarteko Kooperazioen arduraduna, eta Adèle Samjee, Bartzelonako Quebeceko Bulegoko Kultura Gaietako Agregatua eta Stéphane Noël, ekoizle eta komisario artistikoa.

Gainera, Amaia Molinet, Abel Jaramillo, Lorea Burge, Rosa Casado, Ça marche, Olatz de Andrés, Gala Knörr eta Lore Stessel, artistek hartuko dute parte.

Ate irekien jardunaldia publikoarentzat

Arratsaldean, Azkuna Zentroko Egonaldien Programaren bidez lanean ari diren artistek Lantegian dituzten estudioak irekiko dituzte, beren prozesuak publikoen komunitate guztiei erakusteko. Azkuna Zentroko sormen eta errendimendu handiko espazio honetan, dozenaka artistak lan egiten dute, eta beren proiektuak partekatuko dituzte Zentrora hurbiltzen direnekin.

Proposamen hauek bestelako begirada bat eskaintzen diete egungo narratibei, arte bisualen, dantzaren, *performancearen*, ikus-entzunezkoaren, soinuaren eta hitzaren arteko elkargunean kokaturik.

Bertan parte hartzen duten artistak honako hauek dira: Abel Jaramillo, Amaia Molinet, Ane Berganza, Ça marche, Lore Stessel, Lorea Burge, Manu Muniategiandikoetxea, Olatz de Andrés, Raketa Brokobitx eta Rosa Casado.

Azkuna Zentroko webgunean ikus daiteke [programazio osoa](#).

Performanceak, bisita gidatuak eta arte eszenikoak

Arratsaldean zehar, Azkuna Zentroan aktibo dauden proiektuen inguruko hainbat ekintza performatiko egingo dira, hala nola *Entelechy* eta *Lifespan*, Allora & Calzadilla- KLIMA erakusketako bi pieza; *IRIW BE KA KOKODJI*

LADJE URRUN EGON ARREN, Elena Aitzkoa artistarena Kulturen Atarian; Ane Berganzaren *que se basta a sí mismo* Bastida Aretoan; Lorea Burgeren *Sonic fielding*, BAT Espazioan; eta Gala Knörr artistaren *Closer* pieza Azkuna Zentroko Kulturen Atarian.

Bestalde, Ana G. Lartiteguik bere erakusketara bisita gidatu bat eskeiniko du eta dantza izango da eguneko beste protagonistetako bat, espazio ez-kobentzionaletarako sortutako bi proposamen eszeniko berriein: Proyecto Larrua, dantza garaikideko taldeak, *Shoot the target* interpretatuko, jatorrira itzultzeko premiatik sortua eta hurbiltasunetik dantza publiko guztiengana eramatea helburu duena. Elahood, dantza urbanoko galiziar konpainiak, *Intempestiva* eramango du, askatasun- eta desobedientzia-ariketa bat, non elkartzen baitira generoa, galiziar nortasuna, sustraiak eta prekariedadea, zalantzan jartzeko zertan datzan probetxuzko zerbait egitea.

Denboraldi berriaren aurrerapena

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao sorkuntzaren inguruko artearen, artisten eta herritarren, ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren habitat bat da. Artearen bidez gogoeta eta pentsamendu kritikoa lantzeko pentsatutako programazioarekin, hiriko kulturaren gizarte-ehunetik lan egiten du, tokiko eta nazioarteko kultura garaikideko beste espazio eta proiektu batzuekin elkarrizketan.

Irailaren 25ean aurkeztuko den denboraldi berriak ehundik gora kultura-jarduera eta 150 artista eta kultura-profesional baino gehiago izango ditu, nazioarteko bi jaialdi, erakusketa-programa zabal bat, arte biziaren programa egonkor bat -hogeitakuzun baino gehiagorekin-, bai eta hainbat artista, zinema, dantza eta arte inplikatzeko dituzten egoitza-programak eta sorkuntzari laguntzeko programak ere.

Denboraldi berria Fernando Pérez Azkuna Zentroko zuzendariak aurkeztuko du irailaren 25eko prentsaurrekoan.

Sorkuntzari laguntzeko programak

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok. Bilboko Udaleko Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroak Babestu eta Lanean programen deialdi berriak itxi berri ditu. Hauek dira, besteak beste, Zentroaren programazio-ildoak lotutako ikerketa, sorkuntza eta ekoizpen artistikoari laguntzeko -arte bisualak, arte biziak eta, zinema eta ikus-entzunezkoak- bi programa nagusiak. Guztira, Zentroak bostehun proposamen baino gehiago jaso ditu, eta horien artean 2025eko egoiliar berriak aukeratuko dira.

Babestu. Sorkuntza garaikidea babesteko programak, gizartearen eta kultura garaikidearen arteko loturararako Programa Proiektuaren esparruan sortutako proiektua, artearen narratiba berriei begiratzea dakarten prozesu eta ikerketa artistikoei laguntzen die. Lanean. Prozesu eszenikoei laguntzeko programaren helburua sorkuntza eta zabalkunde artistikoaren garapena bultzatzea da eta arte biziari lotutako 2 proiektu hautatuko ditu.

Zentroak, gainera, Elena Aitzkoa, Miguel A. García, Ion Munduate, Lore Stessel, Amaia Molinet, Idoia Zabaleta, Ça marche konpainia eta Olatz de Andrés ditu artista AZkide bezala; Ixiar Rozas eta Rosa Casado Ikertzaile Azkide bezala eta Urbanbat, AZko kolektibo egoiliar gisa.

Gainera, Azkuna Zentroak AZ Elkartutako Artistak ditu, hala nola Elena Aitzkoa, Miguel A. García, Ion Munduate, Lore Stessel, Amaia Molinet, Idoia Zabaleta, Ça Marche konpainia eta Olatz de Andrés; AZekin Elkartutako Ikertzaileak, hala nola Ixiar Rozas eta Urbanado Bat.

Erresidentzian dauden proiektu guztiek beti dute alde publiko bat, publiko-komunitateei gogoeta artistiko garaikiderako sarbidea erraztuz, bai egindako obraren bidez, bai sormen-prozesuen bidez. Sorkuntza garaikidea sustatzeko programak, halaber, gertuko sarea nazioarteko kultura-ingurune homologagarriekin lotzea sustatzen du, trukeak, harremanak eta lankidetzak iraunkorrak eta elkarrekiko lankidetzak bilatuz.

Bestalde, zentroak nazioarteko bi egoitza gurutzatu ditu gaur egun:

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao, Angulemako Cité internationale de la Bande Dessinée et de L'image-k eta Quebeceko Maison de la Littérature-k Komikiaren Nazioarteko Egoitza eskeintzen du. Laugurren edizioan hiru pertsona aukeratu dituzte, komikiaren arloan oinarritutako sorkuntzari laguntzeko programa honen esparruan beren proiektu artistikoak gara ditzaten: Marta Cartú (Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao), Pauline Lecerf (Angoûleme) y Cole Degenstein (Quebec).

Gainera, Azkuna Zentroa – Alhondiga Bilbaok eta Genevako L 'Abri sorkuntza-zentroak Arte Bizien Nazioarteko Egonaldi berria eskaintzen dute, bi guneetan bizi diren artisten arteko mugikortasuna eta esperientzia-trukea sustatzeko. Lehenengo edizio honetan, Georgia Rushton eta Jérémie Nicolet dira Azkuna Zentroko egoiliarak (2024ko abuztua), eta Hautes Zebres antzezlan berrian ari dira lanean La Maison – Théâtre Saint-Gervais-erako.

Lantegia. Ideien Laborategia

Lantegia. Ideien Laborategia proiektu artistikoak ekoizteko eta bistartzeko duen gunea da, parte-hartzea, sorkuntza, jakintza, irisgarritasuna eta dibertsitatea sustatzen dituena. Arteak eta kultura- eta sormen-industrien sektorea profesionalizatzeko zentroa. Nazioarteko proiektzioa duen gunea; lankidetzak, sorkuntza eta berrikuntza sustatzeko.

Lantegia. Ideia-laborategiak arte- eta komunitate-habitata izan nahi du; oso berritzailea, artistikoa eta nazioartekoa; gizartea kultura garaikidearekin lotzeko

moduko truke-lekua; publikoen komunitateek hiriko kultura-ekoizpenean parte har dezaten sustatzeko hiri-laborategia.

Banco Sabadell Fundazioak BABESTU babesten du, sorkuntzari laguntzeko programa, artea eta kultura sustatzeko eta zabaltzeko programaren barruan.

Etxepare Euskal Institutuak Artista Asoziad@ programako Lore Stessel flandestar artista babesten du, Vlaanderen-Baskenland proiektuaren baitan.

Urbegik Artista Asoziad@ programako Ça Marche kolektiboa babesten du, bere ingurunearen garapen sozialerako egiten duen apustuaren barruan, balio-aliantzak sortuz.

Informazio gehiago, irudiak edo elkarrizketak

prentsa@azkunazentroa.eus
Tels. +34 648 773 373